2016-II-08
Número **480.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Erronka, 20.000 enplegu publiko berri

**Jakina da duela hainbat hilabete ELAk prekarietatearen aurkako kanpaina bati ekin ziola. Eta, kanpaina honen baitan, gure sindikatuak ahalegin berezia egingo du eztabaida sektore publikoan zabaltzeko. Horretarako, herritarrak egoeraren larritasunaz informatzea helburu izango duten hainbat publikazio argitaratutako ditugu. Prekarietatearen kanpaina orokorraren ildoari jarrituz, asmoetako bat sektore publikoan ere dauden prekarietate-kasuak salatzea da, eta euskal gizarteari erakustea nolakoak diren lan-baldintzak udaletan, auzoetako anbulatorioetan, seme-alaben eskoletan, adinekoen egoitzetan eta abarretan. Baina zeregina ez da mugatuko egoera salatzera, aurrerago joan beharra dago. Horretarako ELAtik proposamen zehatzak plazaratuko dizkiegu agintariei egoerari buelta emateko. Langileak, eta gizarte osoa, arazo horretaz jabearazi nahi ditugu, eta gero antolatu eta mobilizatu; zerbitzu publikoak, lanpostuak eta lan-baldintzak sustatzearren.**

**Azpikontratazio eta pribatizazioen politikak benetako administrazio paralelo bat izatera eraman gaitu. Zenbait administraziotan gehiago dira azpikontraten bitartez lan egiten dutenak, zuzenean lan egiten dutenak baino. Politika horren xedea zerbitzu publikoa argaltzea da, eta etekin pribatuak sustatzea, enplegu publikoa prekarizatzearen kontura (kalitate gutxiagoko zerbitzua, lanaldi partzialeko kontratuak, gehien-gehienak emakumeentzakoak).**

**Zerbitzu publikoak oinarrizko justizia sozialaren bermeak dira, eta baita tresnak ere, langileok eta gizarte osoak geure buruari hornitu dizkiogunak, bidegabekeriak geldiarazteko, eta berdintasunean eta elkartasunean aurrera egiteko. Horretarako, orain arte suntsitu den enplegua berreskuratu beharra dago, gaur egun dauden enplegu-beharrizanak bete, eta gainera enplegua kalitatezkoa izatea bilatu. Behar ditugun lanpostuak –duinak eta kalitatezkoak– 20.000 dira, langa horretara heldu daiteke. Goazen bila!!!**

Lankidetu!

### EAJk eta PSE-EEk edukiz hustu egin dute ELAk 110.000 sinaduraren babesarekin Legebiltzarrera eraman zuen herri-ekimena

# EZ DUTE BUKATU NAHI PREKARIETATEAREKIN

Zoritxarrez, azken asteetan behin eta berriz egindako iragarpen ezkorrenak bete dira. ELAk 2013. urteko urriaren 29an azpikontrata publikoetako langileen lan-baldintzak duindu asmoz Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen Legegintzako Herri Ekimena ez da aurrera aterako, ez behintzat gure sindikatuak ekimena aurkeztu zuen terminoetan. Otsailaren lehenean EAJk eta PSE-EEk ohar bidez jakitera eman zutenez, akordioa lortu dute Ogasun Batzordearen baitan. Orain Ogasun Batzordeak Ponentziaren txostena onartu beharko du, hots, Eusko Legebiltzarreko osoko batzarrean eztabaidatuko den legea.

ELAren susmo txarrak konfirmatu dira: EAJk eta PSE-EEk adostu duten agiriak boikota egiten die Legegintzako Herri Ekimen honetako eduki nagusiei: subrogazioa eta erreferentziazko diren Lan-Hitzarmenen aplikazioa. Ez dago aurrerapausorik, ezer positiborik, ez enpleguaren egonkortasunean, ezta baldintzei dagokienez ere. Bi alderdi horiek oraingoan ere euskal administrazioen azpikontratetan lanean ari den jendearentzako prekarietatearen hautua egin dute, lehiaketa publikoetan banatzen diren zerbitzuak gero eta merkeago lortzearen truke; berdin zaie hori 55.000 pertsonen bizi-baldintza eta enplegu egonkorraren kaltetan izatea.

ELAk erabat arbuiatzen du akordio hau. Agerian geratu da Eusko Jaurlaritzak esaten duenean jendearen lan-baldintzekin kezkatuta dagoela eslogan bat ari dela erabiltzen, erretorika hutsa alegia. Horretarako aukera eta eskumena izanagatik ere, baztertu egin dute ELAk aurkeztutako Legegintzako Herri Ekimena baliatzea patronalaren gehiegikeriei eta diru-goseari mugak jartzeko.

Zoritxarrez, PSE-EE makurtu egin da hasieratik EAJk zuen posiziora. Duela hilabete batzuk aurkeztu zituen zuzenketek ez dute zerikusirik oraingo akordioan adostu denarekin. Emaitza albiste pozgarria izango da azpikontratetako langileak esklabo gisa mantendu nahi dituzten enpresa piratentzat.




- **PNV y PSE-EE han llegado a un acuerdo en torno a la ILP que presentó ELA y pretendió dignificar las condiciones laborales de las subcontratas públicas.**
- **El Documento acordado por estos dos partidos supone boicotear los temas centrales de esta ILP, como son la subrogación y la aplicación de los Convenios Colectivos de referencia. No hay ningún avance, no hay nada positivo, ni en la estabilidad del empleo ni en las condiciones del mismo.**
- **PNV y PSE-EE han decidido apostar, una vez más, por la precariedad de las personas subcontratadas por las administraciones vascas a cambio de seguir consiguiendo rebajas en las adjudicaciones públicas, aunque sean a costa de las condiciones de vida y la estabilidad en el empleo de más de 55.000 personas subcontratadas.**

# HOMENAJE A PATXI AGIRREZABALA

ELA quiso aprovechar el acto organizado el 5 de febrero en torno a la ILP para volver a recordar a Patxi Agirrezabala, miembro del Comité Ejecutivo y responsable de comunicación, fallecido recientemente. En el acto se recordó el gran vacío que su fallecimiento ha generado en todo el sindicato. Además, Ekaitz Oianguren, Jose Angel Urbieta y Garbiñe Erbil le dedicaron *Martxa baten lehen notak*, canción de Mikel Laboa que tanto le gustaba a Patxi Agirrezabala.



RESUMEN DE LA JORNADA DE MOVILIZACIÓN CELEBRADA EL 5 DE FEBRERO EN GASTEIZ

# "EL GOBIERNO VASCO APOYA A LAS EMPRESAS PIRATAS EN LAS SUBCONTRATAS"




**ELA celebró el 5 de febrero en Gasteiz un acto en apoyo a la Iniciativa Legislativa Popular presentada por nuestro sindicato para dignificar las condiciones laborales de las y los trabajadores de las subcontratas públicas. El acto, convocado antes de que se conociera el acuerdo entre el PNV y el PSE-EE para vaciar de contenidos la iniciativa, contó con el respaldo de 1.800 delegados y delegadas que anunciaron que piensan seguir luchando para frenar la precariedad laboral, también, por supuesto, en las subcontratas públicas.**

**En estas página recogemos un resumen de las principales intervenciones que hubo en el acto celebrado en el frontón Ogeta. Tras el evento, una manifestación recorrió las principales calles de Gasteiz para acabar frente al Parlamento Vasco, donde se recordó a las y los parlamentarios –ese mismo día había pleno ordinario– que todavía están a tiempo de dignificar las condiciones laborales de decenas de miles de trabajadores y trabajadoras de las subcontratas públicas. El pleno parlamentario donde se deberá votar el dictamen de la ponencia sobre la ILP se celebrará –si se cumplen los plazos establecidos– a finales de febrero.**

## Adolfo Muñoz, *Txiki*, secretario general

## "QUIEREN QUE TODO SIGA IGUAL"




El secretario general de ELA criticó duramente el acuerdo alcanzado el 1 de febrero por el PNV y el PSE-EE en la Comisión de Hacienda en torno a la ILP presentada por nuestro sindicato para dignificar las condiciones laborales de las subcontratas públicas. "Es un acuerdo para que nada cambie, para que todo siga igual en esta materia. Han apostado, una vez más, por la precariedad de las personas subcontratadas por las administraciones vascas a cambio de seguir consiguiendo rebajas en las adjudicaciones públicas, aunque sean a costa de las condiciones de vida y la estabilidad en el empleo de más de 55.000 personas subcontratadas. El acuerdo boicotea los temas centrales de esta ILP, como son la subrogación y la aplicación de los Convenios Colectivos de referencia. No hay ningún avance, no hay nada positivo, ni en la estabilidad del empleo ni en las condiciones del mismo".

Muñoz denunció que a los partidos que se han mostrado en contra de nuestra ILP no les importa que en muchas subcontratas públicas se explote a trabajadores y trabajadoras. "Es importante destacar que ha sido decisión soberana de esos partidos partidos decir 'no' a mejorar las condiciones de trabajo de más de 55.000 trabajadores y trabajadoras que a día de hoy trabajan en diferentes subcontratas para la administración pública en la CAPV. Esta vez no podrán poner la excusa de que 'Madrid nos lo impone'. El Parlamento Vasco tiene competencias exclusivas en esta materia. En definitiva, pueden pero no quieren".

El secretario general consideró que, a diferencia de nuestro sindicato y la clase trabajadora, hay gente muy contenta con este acuerdo. "Es evidente que las empresas piratas que pretenden seguir esclavizando a las personas trabajadoras de las subcontratas están muy contentas. Es triste, pero en este caso también el Gobierno Vasco y la patronal Confebask van de la mano. Nos lo dijo personalmente el presidente de Confebask, Roberto Larrañaga, que a ellos nuestra ILP les parecía un 'disparate'. Lo dijo el máximo responsable de una patronal que se dedica a vetar todo aquello que suponga un avance social o laboral. Ellos solo quieren instrumentos para hacer ajustes salariales. Es lo que piden las grandes empresas. La patronal no es que no quiera extender derechos, es que quiere acabar con los que existen; quiere acabar con la subrogación laboral allí donde está regulada. En definitiva, la patronal está feliz por que podrá seguir imponiendo jornadas de 12 horas a cambio de 5 euros la hora en obras públicas licitadas por el propio Gobierno Vasco".

## "HAY QUE DEJAR DE FINANCIAR A CONFEBASK"

El Gobierno Vasco aprobó el martes 2 de febrero un decreto por el que se restablece la jornada de 1.592 horas anuales –o, lo que es lo mismo, 35 horas semanales– para los trabajadores y trabajadoras de la CAPV. El secretario general Adolfo Muñoz aprovechó el acto organizado en Gasteiz en torno a nuestra Iniciativa Legislativa Popular impulsada por ELA para analizar esta medida y la furibunda reacción de la patronal Confebask.

"Al Gobierno Vasco todavía le faltan muchas cosas que restituir para llegar al acuerdo que firmó con ELA el año 2009: la paga extra de Navidad eliminada en 2012 –otras muchas administraciones hace tiempo que ya lo han hecho–; las aportaciones a las EPSV; las prestaciones por Incapacidad Temporal; los acuerdos sobre empleo… Dicho eso, la vuelta a las 35 horas tiene valor. Basta con ver cómo ha salido Confebask. Confebask con su posición afirma una cosa: que está cómoda con las leyes básicas y reformas españolas. Sí, Confebask es más española que nunca. Si el ámbito vasco supone hechos diferenciales positivos, saltan feroces y los atacan. El Marco Vasco para Confebask es un 'copia y pega' de lo que sucede en el Estado. Esa y no otra es la explicación del bloqueo de la negociación colectiva".

"La patronal quiere que 'menos trabajadores trabajemos más horas' para que aumente la productividad y sus beneficios. Le trae sin cuidado el desempleo; casi mejor, porque así encuentra mano de obra barata, dispuesta a aceptar lo que sea. Confebask huye de la negociación colectiva porque las leyes le dan todo. Esta patronal –por cierto, una patronal que no acredita en ningún momento su representación– es un mal ejemplo para la sociedad. Por eso, tenemos que exigir una vez más al Gobierno Vasco y a las Diputaciones Forales que dejen de financiarla".

## Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva

# "EL PROCESO HA SIDO UNA CARRERA DE OBSTÁCULOS"




*Una carrera de obstáculos.* Así definió Joseba Villarreal el recorrido que la Iniciativa Legislativa Popular ha tenido en el Parlamento Vasco. "El PNV ha estado desde el inicio en contra de esta iniciativa, y le ha puesto todas las trabas que ha podido. El propio Andoni Ortuzar nos reconoció en una reunión que este tema les molestaba y que intentarían sacarlo del debate político. Y, efectivamente, han puesto todos los obstáculos que han podido. El Gobierno Vasco hizo un informe contrario a su tramitación parlamentaria. Cuando la ILP fue aceptada a trámite con los votos de EH Bildu, PSE-EE y UPyD fue la Diputación Foral de Bizkaia -gobernada por el PNV- la que planteó una cuestión de competencias para paralizar la tramitación. Al final el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco nos dio la razón, declarando que el Parlamento Vasco es competente para legislar sobre estas materias".

"A partir de ahí –continuó Villarreal– se abrió el plazo para las enmiendas, donde se vio claramente cual era la postura de cada partido. Con las enmiendas del PNV y UPyD no es posible sacar adelante la ILP en los términos que planteó nuestro sindicato. Con las enmiendas de EH Bildu y PSE-EE si sería posible, pues aunque fueran diferentes estas enmiendas se conseguirían los objetivos que nos propusimos. El PP ni se dignó en hacer ninguna enmienda".

El responsable de negociación colectiva destacó que una vez finalizada la fase para realizar las enmiendas ELA ha intentado negociar con todo el mundo. "La dirección del PNV nos dice el 2 de octubre en Sabin Etxea que está de acuerdo con la subrogación y con las sanciones contra las empresas que incumplan los convenios pactados. Nos dicen que nos enviarán un texto alternativo en el apartado del convenio de aplicación, buscando garantizar que se apliquen los convenios de la CAPV. Hasta hoy. Han pasado más de cuatro meses. Llamadas, mensajes y una larga espera para nada".

Villarreal también criticó duramente el cambio de actitud del PSE-EE, que ha pasado de apoyar la tramitación parlamentaria de la iniciativa a una actitud hostil tanto contra la ILP como contra ELA. "El PSE-EE ha cambiado radicalmente su discurso. Se ha olvidado de sus enmiendas y se ha convertido en un martillo pilón que se dedica a darnos caña una y otra vez. Es evidente que el PSE-EE y el PNV han pactado que no hay ILP a cambio del acuerdo de gobernabilidad de las instituciones. Es decir, el PSE-EE ha decidido cambiar dignidad y condiciones laborales dignas a cambio de poltronas. Es vergonzoso, pero no hay otra explicación".

En su relato de los hechos Joseba Villarreal no se olvidó de la actitud que esos dos partidos han tenido durante toda la tramitación parlamentaria. "Han mostrado una evidente falta de respeto tanto hacia la ILP como a las 110.000 personas que la han apoyado. Nos han dado todo los palos que han podido, llegando al extremo de intentar caricaturizar y ridiculizar esta iniciativa. Hemos tenido que oír cosas vergonzosas que, por supuesto, no nos han hecho ninguna gracia: que seguimos la misma estrategia que la patronal; que Rajoy es el mejor militante de ELA; que si no se puede repartir el empleo público de las y los funcionarios habrá que repartir el de las subcontratas; que no van a crear grupos de parafuncionarios/as...".

"Y ahora, ¿qué?" El responsable de negociación colectiva cerró su intervención intentando responder a esa pregunta. "La ILP que han acordado PNV y PSE-EE no es la nuestra, no sirve para hacer frente a los problemas que planteamos. Si se cumplen los plazos establecidos, en dos semanas la Comisión de Hacienda le dará su aprobación, y a finales de este mes de febrero se votará en el Parlamento Vasco. Mientras tanto seguiremos denunciando en todos los sitios que podamos todo lo que ha sucedido. Y, tranquilidad: solo hemos perdido una batalla, no la guerra para acabar con la precariedad laboral. No vamos a admitir esta burla parlamentaria. Tomamos nota. Arrieros somos y en el camino nos encontraremos".

## Maricruz Elkoro, responsable de ELA-Zerbitzuak

# "TAMBIÉN HAY INTERESES OSCUROS QUE PARECEN EXPLICAR LA NEGATIVA A LA ILP"




Maricruz Elkoro comenzó su intervención realizando un detallado análisis de los contenidos Iniciativa Legislativa Popular desarrollada por ELA y cuales serían sus múltiples beneficios para miles y miles de personas que actualmente trabajan en las diferentes subcontratas que ofrecen sus servicios a la administración pública. "Pedíamos tres cuestiones muy básicas: subrogación –como garantía de estabilidad en el empleo–; garantía de condiciones salariales dignas a través del convenio de aplicación; y sanciones en caso de incumplimiento de las cláusulas sociales".

Elkoro analizó con ejemplos prácticos lo que supondría la aprobación de estas tres medidas. "Exigimos la subrogación para evitar situaciones como las que recientemente han padecido las y los Conserjes del Ayuntamiento de Barakaldo. Cada vez que ese ayuntamiento decide cambiar de contrata, las 6 personas que componen la plantilla pueden seguir o no con la nueva empresa. Lo decide la empresa. Si decide de que continúan, su relación laboral empieza de cero. ¿Cuál es la resultante de ésto? Que personas que llevan más de 17 años años prestando los servicios de conserjería cobran 750 euros al mes trabajando 1.800 horas anuales".

"También exigimos, que se garantice el cumplimiento como mínimo de los convenios sectoriales provinciales de referencia. Hoy estamos teniendo problemas con todas las licitaciones que se están realizando por parte de la Administración. La consecuencia de su práctica: despidos y deterioro de condiciones de trabajo, provocando en algunos casos situaciones de auténtica esclavitud, como, por ejemplo, las obras licitadas por educación: trabajadores y trabajadoras que cobran 5 euros la hora trabajando 10 horas al día".

"Por último, –concluyó–, exigimos sanciones en casos de incumplimiento de cláusulas sociales. Un ejemplo: hace unos años las trabajadoras de limpieza de la Agencia Tributaria de Gipuzkoa, tras 9 meses sin cobrar los salarios, iniciaron una huelga. La empresa no pagaba ni salarios, ni cotizaciones sociales, ni el IRPF... Nos reunimos con los responsables políticos de la Diputación para pedirles que rescindieran el contrato con la empresa. La respuesta fue que no tenían regulada como causa de rescisión el impago de salarios y, por tanto, que no podían hacer nada. Eso sí, la administración seguía pagando a la empresa".

Antes esta situación, Elkoro se preguntó por qué la mayoría del Parlamento Vasco se niega a dignificar las condiciones laborales del personal subcontratado. "A situaciones tan injustas como las descritas es a las que queríamos poner solución con la ILP. Pero han decidido no hacerlo. ¿Con qué intereses colisionan estos derechos laborales? ¿Qué intereses están defendiendo? Día sí día también nos desayunamos con escándalos y procesos judiciales abiertos en el Estado por causas relacionadas con la contratación pública: comisiones, redes clientelares y otros intereses más oscuros. De verdad hubiera sido deseable un ejercicio de transparencia, porque, lo contrario nos induce a pensar si aquí, realmente, las cosas son muy distintas".

Prekarietatea sufritzen duten lagunen testigantzek ere tokia izan zuten Ogetako ekitaldian

# ELAK BERE EGITEN DU '1.200 EUROTIK GORA' EKIMENA




Duela hilabete batzuk prekarietate egoeran bizi diren hainbat langilek 1.200 Eurotik Gora ekimena martxan jarri zuen, prekarietatea salatu eta soldata duinak aldarrikatzeko helburuarekin. Orain, ELAk bat egin nahi du kanpaina honekin, eta sindikatuko baliabide guztiak jarriko ditu ekimen hau Euskal Herri osoan zehar zabaltzeko. Maria Solaetxek, ELAk telemarketing-aren alorrean duen delegatu eta proiektu honen bozeramaileetako bat, kanpainaren nondik norakoak aurkeztu zituen gure sindikatuak otsailaren 5ean Gasteizen egin zuen jardunaldian.

"Bizi dugun prekarietatea egoera gizarteratu eta plazaratu nahi izan dugu. Agerikoa da desberdintasun sozialak gero eta handiagoak direla, eta gero eta gehiago direla bizitza duin bat aurrera eramateko arrazoak dituzten lagunak. Horregatik martxan jarri genuen ekimen hau, uste dugula ezinbestekoa dela gutxieneko soldata 1.200 eurotik gorakoa izatea, baldin eta herri honen lagun guztiei bizitza duin bat eskaini nahi badiegu".

Maria Solaetxek bere sektoreko milaka lagunek –batez ere emakumeak– sufritzen duten prekarietate egoeraren lekukotza zuzena eman zuen. "Nik azpikontrataturiko Telemarketing sektorean egiten dut lan, lanaldi partzial batekin... 33 orduren truke astero, astelehenetik larunbateraino, 800 euro baino gutxiagoko soldata eskuratzen dut, zehazki 787 euro. Posiblea iruditzen zaizue bizitza duina eramatea soldata honekin?

Horrez gain, sektore honetan presio handia jasaten dugu. Denbora jakin batean erantzun behar ditugu deiak eta enpresak jartzen dituen baliabideak eskasak dira gure lana aurrera eramateko: deien erdian itzaltzen diren ordenagailuak, bat-batean aplikazioak ez dute funtzionatzen, ez ditugu bezeroak entzuten... Nik lan egiten dudan enpresan baimena eskatu behar dugu komunera joateko, eta, gainera, langileon komuna enpresatik kanpo dago, beste eraikin batean. Enpresa buruen komuna aldiz, enpresa barruan dago. Apartheid-ean bizi gara langileok.

Aulkiak ondatuta daude, eta horren ondorioz sorbaldan minak eta gaitzak sufritzen ditugu. Gainera banan-banan, egin behar ditugu atsedenaldiak, horrek dakarren isolamenduarekin. Garai batean gure artean hitz-egiteko debekua ere jaso genuen. Ez gaituzte antolatuta nahi.

Sektore honetan oso ohikoa da arreta zerbitzuak enkantera ateratzea, prezioak jaisteko asmoz. Eta subrogaziorik ez dagoenez, gure lanpostuak etengabe ikusten ditugu kolokan. Guztiz ezengonkorrak dira. Eta, gainera, irribarre telefoniko batekin egin behar duzu lan! Aurpegi gogorra behar da ditxosozko irribarre telefonikoa eskatzeko bizi dugun miseriarekin!

Miseriazko soldata horrekin, alokairua, elektrizitatea, janaria, arropa, garraiobideak, telefonoa eta internet eta aisialdia ordaintzen ditut, edo gutxienez saiatzen naiz... Beti ez delako posible, prezioak igotzen dira eta batzuetan ez naiz hilabetea bukatzeko gai. Askotan, berogailua piztu behar dudan edo ez pentsatzen egon behar dut, faktura ordaintzeko ez ote naizen gai izango beldurrarekin.

Gure inguruan begirada bat botatzen, ikusi dezakegu zein den gizartearen egoera... Bilbon adibidez, kutxazainak beteta daude eta ez jendea diru bila doalako, baizik eta lo egiteko aterperik ez dutelako. Etxebizitza duinaren eskubidea ere ez da bermatzen... Nora goaz politika hauekin?

Azken hilabeteak gogorrak izaten ari dira, bizitza asko garestitu da eta ez du ematen soldatak igoera bat izango dutenik. Beraz ez dugu esperantza handirik egoera asko aldatuko denik. Pasadizo txiki bat kontatuko dizuet: urtarrileko azken egunetan gaixotu egin nintzen, eta noski, medikuarengana joan nintzen. Berak, gripea nuela esan eta botikak erosteko errezeta eman zidan. Arazoa botikak erosteko dirurik ez nuela izan zen, dagoeneko nere kontu korrontea zenbaki gorritan baitzegoen. Amarengana jo behar izan nuen egoeraren berri emateko, eta berak ordaindu zituen beharrezko nituen botikak.

Orokorrean, hala ibiltzen gara, familiari diru laguntza eskatzen, beraz, gure familiak ere gure egoera kezkagarria pairatzen du. Baina zer gertatzen da familiak ezin zaituenean lagundu? Zein baliabide gelditzen zaigu? Zeintzuk dira ditugun aukerak? Aurreko galdera hauek politikariei zuzentzen diet... Ez litzateke hobe izango kapitalaren menpe egon beharrean gizarte osoarentzat lan egitea? Baina ez du ematen joera aldatuko denik, hitz asko eta egitasmo gutxi!".

## TESTIMONIOS QUE DEMUESTRAN LA IMPORTANCIA DE LA ILP DE ELA

Durante el acto celebrado en el frontón Ogeta se pudieron escuchar intervenciones de trabajadoras que trabajan en diferentes subcontratas para la administración pública. En la imagen, Araceli López (Gastronomía Baska) hablando y Elizabete Cabanillas (trabajadora de una UTE subcontratada por la Diputación Foral de Araba para realizar las labores de guarda forestal) a su izquierda esperando su turno. Ambas trabajadoras expusieron sus casos, testimonios que demuestran la importancia de aprobar las medidas propuestas por nuestro sindicato si se quiere luchar contra la precariedad del personal subcontratado.




**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207